

# IZADIA'RI ITZALA

Neure semien baratzea Lemoniz'etik zazpi aneineurki aldentuta dago. Ango Zentral Nuklearra lazter asiko eida ibilten.

Bildurra? Ezba; ikusiko dogu. Neure ustez belbillak dirala ta urtian datozan ain beste eriotza, eztau beinguan ekarriko. Nok dauko bildurra belbilla artzeko igandietan uri nagusitik iges egiteko? Aurrerakuntza bearrezkoa da.

\* \* \*

Gizadiaren onerako ala galtzerako egin da ikaragarriko ola andi ori? Nik ez dakit.

Milla aldiz milloiak eralgi dira bera eregiten.

Beste aldetik, gomuta biar dogu, aurrerapen guztiak euren asi-aldian, beti izan dabezala arerio amorrotuak: Lurrun-indarrak Fulton'en denporan; tximistargiak Edison'en aldian. Orregaitik nik ezdot ezer esango Nuklearratzaz.

Baiña gauza bat argi ikusten dot: Milla aldiz milloi orrek eralgi dira Izadiaren aurka.

\* \* \*

Geure Euzkadi'ren baster polit-polita ondatu dabe.

Atxen artean umeak ezdabe karramarorik ar -apeuko, nagusiak zugatzen gerizpean erdi lo gagozan artean txorien eresia entzuten.

Ango bazterrean edertasuna ta poza betiko joan jakuz.

Eta geure biotzean itzi dausku, nola edo alan Izadiari lagunduteko gogua.

\* \* \*

Adibiderako edestuko dautzuet geure baratzean jazo dana:

Ingurututen daun esia, neure semia artazi andiaz palaxatuten eguan. Bat batez ikusten dau abi anditxu bat: Zozuen abia. Lar ebagi dauz adarrak bere aurrian. Orain agirian dago abia. Etorriko ete dira zozuak bertara, ala ondatu dogu bere abia, betiko?

Ba datoz bai ondiño. Orain gu gara andik urrinduten garonak.

Egun bi igaro dira. Ikusi dogu zozo baltza andik urten dala, eta arnasa geldi-erazota, ez izteko an lagunen us tña, urreratu ta... ba-dagoz bertan arrautz bi.

Orain zozua da angu errege. Gu ez gara igaroten andik.

Umeak goiko aldean bakarrik olgetan egoten dir ; ta etxetik urteteko beste bidea ta beste atea artzen doguz. Zozo erregea, bakean eta zorionean azi zeure umeak!

## GOMUTAGARRIAK

*Zegaitik ez oroitu  
gudarien gurenda?  
Azp'razu'tar Iñakí'k  
dan-dana edestu eustan.*

*Bultz-bidetik aurrera,  
ezer ez estaltzeko,  
erraza da etsaientzat  
talde osua birrindu.*

*Zegaitik ez, doixtarrak  
eztabe danak erail  
metralletan boladaz?*

\* \*\*

*Geure guda galduta,  
ez biotzen kemenak  
iritsi eben gaztiak  
jarraitu, dala onena.*

*A bade eurekaz dauke.  
Autortu ta Jaunartu  
egin dabe geyenak.  
Iiteko trankil dagoz  
ta ba duaz, aurrera.*

\* \* \*

*Doixtarrak, geure aurka  
(Gernika eztoigu aiztuten)  
ekin dabe luzaro,  
Aberria ondatuten.*

*Maki jauna dabil  
batzutan lenengoaz,  
arrisku nagusian;  
beste batzutan, barriz,  
epelak adoretzen  
geratzen dala, atz'ran.*

*Ikusi dabelako  
datozala gixonak  
bulartsu-biotzdunak.  
Euren menpian, ziur,  
egongo dira obe,  
frantzez azpian bario.*

*Ba duaz, ba, Bretaina'n  
Ikurrñan atzian,  
doixtarren blokus artzen:  
Agertzen da an, aurrian.*

*Leyo txikitxutik  
zapi Te Deum'a abestuten  
asi da Azpiazu jauna.*